

FUNTSEZKO SOZietATEAK- ALIANTZAK

Guk sortutako enpresak, Txiki Txoko akademiak helburu argi bat du: umeen ikaskuntza eta garapena bultzatzea, eta horretarako hainbat elkarte eta erakunde izango ditu lagun.



Gure lehen aliatu nagusiak **eskolak** izango dira, haiekin harreman estuak sortuz. Eskolak komunitatearen erdigunean daude, eta bertan umeek egunero ikasten dute. Beraz, ikastetxeetara joan gaitezke orientatzaileekin hitz egitera. Hitzordu bat antolatuz, orientatzaileek eskolako beharrak eta iritziak ezagutzeko aukera emango digu, eta haien eskaerak kontuan hartuz, gure zerbitzuak hobetzeko pausoak eman ditzakegu. Horrela, ume batek laguntza behar izanez gero, gure akademia gomendatzeko aukera izango dugu.

Informazio hori gurasoei eskaini ahal izango diegu, gure zerbitzuak eta irakaskuntza metodoak hobeto ezagutzeko. Beraien seme-alabak ikasketetan laguntza behar dutenean, gure akademia gomendatzeko aukera izango dute. Gainera, **gurasoen AMPA elkarte**an hitzaldi bat emateko aukera aztertzen ari gara. Hitzaldietan, Txiki Txoko Akademiaren eskaintza eta irakaskuntza metodoak aurkeztu ahal izango ditugu, gurasoak gure zerbitzuen berri izateko eta nahi izanez gero, haien umeak apuntatzeko.

Gainera, gure ikastetxeei eta **inguruko komunitateei informazioa** zabaltzeko estrategia bat ezarri dezakegu. Kartelak jarriko ditugu inguruko zonaldeetan, hala nola, parketan, jolaslekuetan eta gunen publikoetan. Horren bidez, umeek eta gurasoek gure eskaintzaren berri izan ahal izango dute.. Publizitate material hau ikusgai izateak, gure akademiaren irudia indartzen lagunduko du, eta umeek gure zerbitzuak ezagutu eta esperimentatzeko aukera izango dute.

Horrez gain, **Leioako Udaletxearekin** elkarlanean aritu gaitezke. Udalarekin koordinatuta, Leioako jaietan marrazketa lehiaketak, antzerki emanaldiak eta jolasak antolatu ditzakegu. Jarduera hauek ez dira soilik dibertigarriak izango; gure akademia ezagutarazteko aukera paregabea ere emango dute. Umeek eta gurasoek esperientzia positiboak izanez, Txiki Txoko Akademiaren irudia indartuko dugu, eta horrek ezagutarazteko aukera emango digu. Horrela, gure proiektua komunitatean ondo ezaguna izango da, eta umeen ikaskuntza eta garapena sustatzen lagunduko dugu.



Gure akademiaren helburu nagusiak ikastea eta dibertitzea dira. Eta hona datozen ume eta guraso guztiak pozik egotea.